

# Langai

1989ko OTSAILA

LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK

ZENB. 2

**Batasun Nazionala  
Erabakiak**

**Negoiazio  
Kolektiboak**

Zbkia

**ZA  
BAI  
TZEN**

TXT 10003

DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

**Batasun Nazionala  
Erabakiak**

**Negoiazio  
Kolektiboa**

## SARRERA:

Negoiazio Kolektiboari buruzko ponentzian zenbait ekarpen egiten da:

### 1.- EKONOMI-EGOERA.

Lana hezkuntzarako gai modura erabiltzeko beharra ikusten da. Atal honetan etengabe gaurkotu beharra dute Sindikatuaren Zuzendaritza-Organuek.

### 2.- LANGILE-MUGIMENDUAREN AZTERKETA.

Bizkaiko Herrialdetik ekarri den lana sartzen da hor:

- Kriaren ondorioz kapitala-lana direlako harremanetan gertaturiko aldeketetan sustraitzen diren Produzkie-Harreman Sozialak.

### 3.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA ETA ERREFORMISMOA.

Ekintza Errebindikatiboaren arduradunek zehazturiko plaraforma ekarri da atal honetan, abiabide izan dadin, 89ko negoiazio kolektiboari begira.

## SARRERA

Ekarkin honek langileriaren egoera aztertu nahi du, produkzioarako gizarte-harremanen ikuspegitik, "krisiari" heltzeko, lan-tokian bertan eta gizartean kapitala/lana harremanetan gertatutako aldaketatik eginez.

"Krisi ekonomikoa" izendurak (hobe esatea, berregokipena, kapitala behar eta perspektiba berrietara moldatzen dela) dagoen ereduaren aldaketa sakona ekartzen ari da 70eko hamarkada ondo sartua arte, aldaraziz lehen-gaiekin edo erdilanduekin, makinekin eta erramintekin, beste langileekiko harreman-bideak, eta aldaraziz, baita, kulturaren transmisioa (hezuntza-sozializazioa), ekoiztutako ondasunen merkatalteza, aisialdia, zerbitzu publikoak, ...

Ahal eta behar dugu "krisi ekonomikoaren" agerikoak lekutu eta aztertu, hala lan-tokietan zelan geure ihardun politiko-sindikalean. Honek lagundu egingo digu ulertzen eta geureganatzen gure gaurko ingurua, geure egoera, langileak garen aldetik, eta, halaber, lortu eta benetan hala izan dadin nahi dugun aldaketa politiko eta sozialaren alde eskuhartu eta borroka egiteko perspektibak.

## I.- KOKATZE POLITIKO-EKONOMIKOA

### 1.- EKONOMIKOA

70eko hamarkadatik aurrera, metaketa azkarraren eredia (alokairu handiagoa = kontsumo handiagoa = ekoizpen handiagoa = ...) ahitzean, ereduak berak xurga zitzakeen produktuen merkatua saturatuta egoteagatik, lan-indarrak ekonomia orokorrean (zuzeneko alokairuak, gizarte-alokairu gehiago) zuen egitur pisuak ez zion kapitalari, bere metaketa onuren prozesuan segitzeko beste eredu bat planifikatzen uzten.

Honela ba, kapitalak aldibereko hiru helbururi ekin behar die:

- A) Produkzio-azpiegituraren eraispena eta transformazioa.
- B) Bestelako azpiegitura eredu bat oldoztu eta eratu.
- C) Langileriaren eskuharmena ekonomia orokorrean murriztu; edo, alderantziz, kapitalaren osaketa organikoa handitu.

A) Produkzio-azpiegituraren eraispena eta transformazioa, zakarkien lehengo ereduko sektore motortretan (dela hedadura dela sakontasuna, eta epealdi laburrean) ematen da: kontsumo intentsiboari datzekionak (automobilak, etxe-elektrotresnak, eraikintza, ehungintza,...), berauen garraio eta merkataltzeari (untzigintza, automozioa, trenbideak,...) eta oinarritzat zuten industri transformatzaileari ere (burdingintza eta metalurgia, altzairuak, makina-erraminta,...). Ondorioz, elkarlotura medio, zerbitzuak aldatzen dira (aldabidean den lan-merkaturako hezitu, teknologia berriak, osasuna,...).

"Krisi-egokitzapen" aldi honetan, sistema "oxigeno-baloi" ez gutxiz baliatzen da ekoizpen eta errenta-garritasun erritmo egokia mantentzearen = armamendua (hala "kanpo-etsaien" nola barnekoen aurkakoa), finantz eragiketa espekulatuak, (boltsa "gora eta behera"),... eta ekoizkera kapitalista bere mota guztietako giza-ihardunetara hedatzea, ekoizkeraren sektore urrun eta baztertueta sartu eta irentsiz (nekazaritza, arrantza, abeltzantza, zerbitzu pertsonalak, ikuskizunak, artea eta aisialdia, bideo-komunikabidek,...).

B) Baina, kapitalak behar ditu, batez ere, sektore berriak eta lehengoan aldean beste osakera bat dutenak, prozesu ekonomikotik teinka dezaten, galdu edo estankaturiko irabaz-mailak berreskura eta gehitzeko. Menturazkoegia da aurretik esatea zeintzu izango diren sektore-lokomotoreak, baina garrantzia du gutxi gorabehera zeintzu izan litezkeen jakiten ahalegintzea: oinarrizko ekoizkin artifizialak (beira-fibra, gai sintetikoak,...), janari sintetikoak, itsas-baliabideak (elikagaiak eta lehengaiak) masiboki eta teknifikaturik hustiratzea, espazioa kolonizatzea (lehengaiak, kanpo ekoizpena,...) etab.

C) Lan-indarrearen egitur pisua gutxitu, zeren kapitalaren maniobra-gaitusuna gaur egungo egoeran murrizturik geratzen da. Funtsezko neurri bi:

- a) Besterik gabe eta zuzenean lan-postuak ezereztatzea, halako sektore eta enpresetan, non ez duten nazioarteko planifikazioak iraungarritzat diseinatu dituenekin norgehiagoka egin/tokia kentzeko ahalbiderik.
- b) Kostuak "arrazionalizatzea": kostuen beste osagarriak egiaz higiezinak izanik, lan-indarraren ordez kapitala ezartzera jotzen du (informatika, automatismoak,...) eta halaber esku-lanaren kostuak (alokairu eta gizarte gastuak) zuzen zuzenean gutxitzera ere.

Biotan integraturik beste neurriak ere bada, bai makroekonomi mailan (adibidez, garraioan aldaketak denborak laburtzeko, merkatalgaiak gorde,...) edo bai mikroekonomi mailan (adibidez, gazteak kontratatzea gutxienezko alokairuz, hitzarmenik aplikatu gabe).

## 2.- POLITIKOA

Argi dago gobernu mendebaldeko-kapitalista guztien homogenotasuna beren politikan, lan-indarraren egitur pisuaren handitzea geratu nahian ez ezik ahalik eta gutzienera murriztekoan ere. Gutxienezko hori gatazkaren atalaseak xedarrizten du, ez bestek: lan-indarrak leher egin dezakeelako ahalbidea somatu edo ukitzen den arte. Reagan, Teatcher, Felipe, Mitterrand, Kohll, italiar pentapartidua,... denak datoz bat zuzeneko alokairuen gehikuntza dauden daudenean uzteko eta alokairu sozial/zeharbidezkoa gizarteak berak utziko dueneraino iraitzi (zenbait pentsio desagertu, desenpleguaren babesdura murriztu, pentsioak dauden daudenean utzi, zerbitzu publikoak pribatizatu,...).

Beste herrietan aurreko instituzio-bilbatuak (parlamentuak, gizarte-ituna, ongizatearen egoera,...) desagokitze eta gatazka sozio-politikoak ondo "lotu" dituen bitartean, Hego Euskadin aldi berean izan dira diktadura desagertzea eta orduan egon ez zeuden instituzio sozio-politiko finkatu eta integratzaileen beharra. Nazio-kontraesana ezin ebatzia izan ez ezik, gizarte-kontraesanen elementu katalizatzaile ere bihurtu da. Zalantzarik ez, honetarako, erabakiorra izan dela baldintza objetibo egokiekin batera egon den abangoardia, zein erreformaren planei zirikatzen ibili bait da berauek inefikaz bihurtu arte; gaur egun tinko esan dezakegu ezen emanzipazio-borroka zenbaitek (klasekoa, feminista, urbanoa, ekologikoa, ...) sortarazitako gatazken kontrola eta erregularizapena instituzio-bilbatuak aseguratuz ez euki ez ezik, proiektu alternatiboa eratu dela ere, E.N.A.M. alegia.

Honek -nazio-arazoaren inguruan eta beronek zehaztatua- emanzipazio borroka ezberdin horiek gizartean indartsu iraun zezaten ahalbidetu izan du, halaber herriaren kontzientzia sozio-kulturalean bilaka eta finka daitezten, eta, baita, ahalbidetzen du ezen borroka horiek gizarte-transformaziozko prozesuan lorpen itzulezinak iritsi ahal izatea.

Langile Mugimenduari dagokionean, ukazinezkoa da bierregituraketa ekonomikoak Euskadin Erreformari dakarkion kostu politiko itzela eta kostu politikoonek E.N.A.M.en indartzea dakarrela, proiektu alternatiboa denez gero.

## II.- LANGILERIAREN EGOERA

Euskadin badirudi ezen krisi ekonomikoaren ondorioek oraindik "abagadune kaltegarri" batek jota gaudelako ilusio funts gabekoa irauraraztea ahalbidetzen dutela, batez ere oraindik bere hartan dirauenean aurreko etaparen inertziak, enpresa askok beren kapitala/lan-indarra osaketa organikoak moldatu gabe dituztela, noiz eta artifizialki iraurarazten bait da "birmoldaketaren" abeta edo barra-barra zabaltzen berehalako zuzperketa datorrenaren irudikeria ... eta heltzea inoiz ere ez da burutzen.

Euskadiko produkzio-azpiegiturak izandako aldaketa sakonak eragina du, baita, langileriaren osaketan, zeren aldatu egiten dira hala lan egiteko modua nola lanpostuaren beraren lorpidea: azken hamar urteotan lan-baldintzak eta lan-eskuaren merkatua aztertu egin behar ditugun aldaketa garrantzizkoak noiztzen ari dira.

### 1.- KAPITALAREN HELBURUA

Kapitalak lan-harremanak birmoldatu nahi ditu, egoeren heterogenotasuna (lan-baldintzen homogeneotasuna hautsiz), indibidualizazio ahalik eta handiena, atomizazioa sustatuz. Azken batez, nahi duena mugikortasuna eta lan-indarraren erabiltzeko askatasuna da. Joera edo nahia lan-eskua gero eta gehiago murriztu eta gauzatea da "erabili/erabili ez" egiteko, "ekoitz ihardueraren beharren" arabera, merkatalgaia edo makina bailitzen. Eta guzti hau bai ihardunean den lan-eskuarekin bai ihardungai denarekin.

Nola kapitalak merkatalgaiak moldatzen bait ditu (tamainua, forma, pisua, iraupena,...) beraien trukebalioa hobetzearen, hala moldatzen ditu pertsonak beraien truke-balioa murriztearen, kostuak eta ekoizpena "arrazionalizatzeko".

## 2.- KAPITALAREN ESTRATEGIA

Helburu nagusi hau iharduera-ildo biren bitartez garatzen da:

- a) Produkzioaren deserdirapena.      b) Teknologia erabiltzea.

### A.- PRODUKZIOAREN DESERDIRAPENA:

Aldi bereko bi mailatan egiten da:

- a) Mundu-mailan: Nazioarteko Lan-Banaketaren adierazpenei jarraiki (lan-esku askodun enpresak merkea den lekuetan,...).
- b) Estatu garatu bakoitzaren barne-mailan, ekonomia bikoitza: sistemaren erdigunea enpresa monopolistek dute harturik eta ingurualdea botere erabakiorrik ez duten enpresentzat, merkatuaren elkarlehia librearen menpean, geratzen da.

Estatu garatu hauetan (Euskadin, beraz) ekonomia bikoitz horri egoki eta bat datorkio lan-egitura bikoitza, baita: erdigunean negoziazio kolektiboa dago, lege-sistemari atxekirik,... eta ingurualdean azpienplegua, aldi baterako kontratazioak, ...

Eta, mundu-mailan, ikerkuntza eta antzeko arloen adar espezializatueta esku sartu eta garatu estatu hegemonikoek baino egiten ez dutenez, merkatua sendatu dute eta non adar hauek garatu ez diren bertan sartzen dira: herri ez hegemonikoek beren produkzio-azpiegituraren deskualifikazio-prozesua areagotzen doala ikusten dute.

Produkzioaren espazio-banaketa (ekoizkina bera osorik egitea euki, beraren zati eta atal bakoitza toki eta enpresa ezberdinetan eginez, eta atal zenbat eta txikiagoa, are eta handiagoa haren ekoizpenaren sakabanatzea) funtsezko prozesuetarikoa izatera pasatzen da. Hau egingarria da, lanaren banaketa teknikoak eragiketa autonomo eta ezberdinetan epe laburrean (hilabeteak, egunak edo, baita, ordu batzu) trebatzea eta enpresa edo lan-toki txiki eta sofistikatuen hiperespezializazioa ahalbidetzen duen neurrian. Arlokatze hau ondorio da -ezi ez kontraesana- enpresa-kontzentrazio gero eta handiagorako joerarena (enpresen batasuna edo plangintza koordinatua = multinazioanalak, taldeak,...), honek ekoizpen-prozesu guztia botere-gune bakar batetik kontrola eta planifikatzea ahalbidetzen du.

Aldi bereko "kontzentrazioa/deserdirapena" marea gora-behera hau sektore eta zerbitzu orotan gertatzen da.

Enpresa espezifikoak, ikerkuntzan, kudeaketan, mantenugintzan, garbiketan,... ari direnak, kontzentratzeak beste enpresa batzuri bakoitzak bere zerbitzu edo sailak eta beraien lan-eskua edukitzeko beharra arindu edo kentzen die. Deserdirapen hau lehen lan-tokian bertan egiten ohi ziren mota guztietako atazetara hedatzen da = nominak egitea, ekoizkina banatu eta garraiatzea, publizitate etxeak, saltzaileen ordezkia egiten dutelarik, fakturazioa, zaintzaileak, etab.

Seguruenez, deserdirapen hau (lan-banaketaren rrazionalizazio zorrotza) enplegu-murrizketan eta lan-eskua deskualifikazioan erabakiorragoa da langileen ordezkia makinak eta automatismoak ipintzeko prozesu bera baino, itzelezko norbanakoa/ekoizkortasuna tasa sortzeaz gain.

Produkzioaren deserdirapena edo banatzea sartzen da, baita, alderdi tekniko-profesionalen garapenean = "lanbideari" dagokion iharduera-gunea gero eta gehiago atalkatzen da zenbait mikro-atazatan, berex eta zatika,

eta berauetarik bat ere ezin identifika daiteke, dagoeneko, "lanbidearekin" (are gehiago "lanbidea" bera enpresarekin baino ez identifikatzera ailegatzeko da = publizitatea, ingeniariaritzak, abokatutzak,...). "Lanbide berriak", "karrera berriak", "dena delako berriak" edukin murrizketaren espezializazio zorrotza, atomizazioa baino ez dira, ikasketa bizkordun lanetara heldu arte (ikastaro laburrak, "karrera erdiak", edo "laurdenak" edo "hamarrenak". Sistemak, denborarekin, ez ditu "lanbidedunak" aterako -ez ditu behar izango- ataza espezifikoko bat ikasi eta beste batetara arin moldatu ahal izateko maila nahikoa duten pertsonak baizik. Ondorioz, ikaskuntza-sistema aldatu egingo da (L.H., Unibertsitatea,...).

### B.- TEKNOLOGIA ERABILTZEA

Automatismoak eta teknologiaren berri berriena erabiltzeak produkzio-prozesuaren faktore guztien aldaketa dakar = enpresaren izaria, lana zatitu eta antolatzea, lanbide-deskualifikazioa,... baita badatxekio ere, lan-indarraren ordez kapitala erabiltzea, kostu txikiagoa, ekoizkortasun handiagoa, egonkortasuna,... lor-tzearen.

Aldaketak zentzu bitan burutzen dira, batez ere,:

- a) aldaketa ekoitz-teknikoa = makinak, erramintak, gaiak, ...
- b) lan-prozesuaren antolaketaren eta langileen arteko harremanen aldaketa.

Lana eragiketa ximpleetan atalkatzeak, bakoitza langile batek eta makina batek egina eta eragiketa bakoitzaren espezializazioak lanbide-kualifikazioa gero eta gehiago galtzea dakar, ekoizkortasunaren gehikuntza iraunkorra, enpresa barruko lan-harremanak indibidualizatu eta isolatu eta enpresariaren agintea eta kontrola indartzen dituzte.

Teknologia honetara erabiltzea eta lana zientifikoki antolatzea iharduera "aurrekapitalista" dun sektoreetan ere hedatzen ari da (nekazaritza, arrantzua, merkataritza txikia, kudeaketa,...) eta halaber sektore berrietara (irakaskuntza eta osasuna, turismoa,...).

Azkenik, utzi eta ahalbidetzen du azken ekoizkinaren beraren produkzio-deserdirapena unitate ezberdinetan (enpresa eta herri desberdinak), batzuk kapital-osaketa (ikerkuntza,...) gehiago edukiz beste batzuk baino (esku-lan gehiagoren behararekin).

### 3.- KAPITALAREN TRESNAK

Estatuak ematen dituen arauak kapitala berreskuratzen lagundu eta areagotzen dute, *kapitalaren kontrolatzaile* (lan-esparruko "gehiegikerik" mugatuz) ihardutetik *lan-indarraren kontrolatzaile* ihardutera pasatuz, kapitalaren mugimendu-gaitasuna karrotatzen duenez, haren egitur-pisua mugatuz, lan-indarraren erabileran malgutasuna eta mugikortasuna sartuz, kostua gutxitzeko.

Lan-legeriak, azken batez, deserdiratu eta teknologia aplikatzearen estrategia bikoitzaren alde egingo du.

Baina ez estatu-legeriak bakarrik, baita konbenio kolektiboek ere, izan ere berauen klausulen %99ak lan-prestazioen razionalizazioa daukate (ihardunaldia, ordainketak, lansariak,...) ezi ez kapitalak ihardun diharduen moduaren gaineko kontrola (ekonomi kudeaketa, teknologi birmoldapenak, merkatal politika, plan-gintza,...).

Hala estatuak, kudeatzaileen eta instituzioen multzoa den aldetik, nola langile-erakundeek berek (alderdi eta sindikatu erreformistak) bereganatzen dute eta eskaini ere gizarte-itun iraunkorra, zeinek ahalbidetuko bait ditu kapitalaren estrategiarentzat onuragarriak diren lan-baldintzak, zuzeneko alokairua eta zehar bidezko alokairua, hots, soziala.

#### A.- LANEAN ETA ZUZENEKO ALOKAIRUAN.

Lan-baldintzak gero eta txarragorantz doaz, hots, joera beheranzkorra, kolokazko egoera bersartuz, Langile Mugimenduak berak bere borroken bidez mugatu egin zuena; azpikontratazioa, aldi baterako kontratazioa eta azpienplegua langileriaren zati handi baten ezaugarri zehatzak izatera heldu dira. Langileen

Estatutuaz geroztik hasten da prozesu arauemaile eta malgutzaila eta haren arautegi-garapenak areagotu eta ezartzen du, batez ere 17. art.arekin (aldi baterako kontratazioa) zerikusirik duten arauetan, "lan-postuak sozializatuz", ministro batek, "sozialista" jakina, oso ondo eta bete betean esan eta defendatu zuen moduan. Baina arau hauek lanaren garapena bera eta lan-baldintzak aldatu dituzte ere, zenbait lorpen geraraziz edo, baita, desagertaraziz (adibidea = Bizkaia-Metaleko utzialdia amaitutakoan bersartzeko behararen klausula).

Ordainketak direla eta:

- a) Hitzarmena egiten den tokian, lehenago, eskuratzeko ahala, hala edo bestela, gorantza zihoan (kapitalak ere hala nahi zuen = zenbat eta alokairu handiagoa ere eta kontsumo gehiago eta ekoizpen handiagoa); orain, gehien jota, ekoizkortasuna/inflazioaren mailan.
- b) Hitzarmenik egiten ez edo hitzarmenekoa bete erazteko baldintzarik ez dagoenean (bigarren mailako edo monopolistetatik urrun dauden enpresetan: sistemaren inguraldea estatu bakoitzaren barruan), enpleguaren kolokazko egoerak beheranzko joeraz doitzea ahalbidetzen du, baita itunen beren aplikazioari itzuri eginez ere (benetako atazei dagozkien mailak baino txikiagoak esleitu,...).

Azkenik, lehenik Estatutoak eta ostean eskubide sindikalak mugatzen eta murrizten dituzten lege bereziek (LOLS eta LORS) mugatu eta murriztu egiten dute ordekariek eta komiteek edo pertronalgo-batzarrek duten ekimen-gaitasuna. Guzti horrek dakarrena da ezinezko egitea langileen aldeko ildoetara -hala taktikoetara nola estrategikoetara; negoziazio bidez, instituzioen bitartez- berbideratzea kapitala-estatu-erakunde erreformisten estrategia, nahiz eta oraindik heldu gabe egon europar eraso (Britania, Alemania, Frantzia...), guztioan egin bait da atzerantz.

## B.- GIZARTE-ALOKAIRUAN

Enpleguaren gaineko politika zehatzarekin batera, gizarte politika agertzen da, langileriaren lorpenek determinatua eta ardaztua den bolumen ekonomiko eta instituzionala sorrazteko elkar osatzen dutelarik biek.

Estatuak kudeatzen dituen gizarte-estaldurekiko alderdian, joera argia dago, hots, ASEGURU PRIBATUAREN LOGIKAK LAGUNTZA PUBLIKOA KENTZERA JOTZEN DU:

- a) Laguntza publikoak kentzea, langileriarentzakoak garestitzenagotzea (beharkizun estuagoak) edota mugatzea.
- b) 'Arazo-taldei' zuzenduriko laguntzak, hala nola, prestazioak, sorospenak, subentzioak,... aurrerantzean gakoa ez datza prestazioak guztiengana zabaltzean, estatuak gizarte kontraesanei hesiak jartzeko doitasun eta arintasunaren bilaketan baino, prestazioak hartzea izatearen onuratik kenduz negoziatorako zein presiorako gaitasun ahulagoa duten taldeak, nahiz dela hauteskunderi begira nahiz dela klase interesei begira (P.E.J.) eragin ezkorra dutela eta, politika aldetik errentagariago edo sentikorrago diren taldeetan konzentratuz.
- c) Lan-indarren bersorkuntzari uztartuak izanik ere, Merkataritzakoak izan ohi ez diren arloak pribatizatu-haurtzaindegiak, etxelanetarako laguntzak,... eta baita, areago, gartzelak eurak ere pribatizatea, beharbada.
- d) Aseguratuenganako presiobideak, erakunde pribatuetara jo dezaten pentsio fondoak.

## 4.- ONDORIOAK LANGILERIARENGAN

### A.- LANPOSTUA ESKURATZEAN

\* Ezinezkoa izango da krisialdiaz aurreko enplegu-mailak berreskuratzea. Krisiak berak mutazioak eragin ditu Euskal Herriko produkzio-egituretan (beste inora aldatzea bertoko produkzio-sektoreak eta inongo berririk ekarri ez); lan-eraketan ere nolatasuneko jauziak (pertsoneko produktibitate altxatzea eta erabilitako lan-indarra jaitea); hirugarren sektorearen informatizazio hazkorra (finantzial-elkarteak, kudeaketa-mota guztiak, bideo-irakaskuntza...) \* 'Muturreko adinetan' diren pertsonak (gazteak eta 50 urterik gorakoak) biztanlego aktiboaren barruan erabiltzearen murrizketa, larriagoa izanik egoera 16rik 24urterarteko adinetan

artekoen aldetik, eskolaldia luzatu egin den arren. Garakuntz-gariko joera, unibertsitate eta teknika arloetan jendetzak sortzearena alegia, konpensazio-mekanismoak aurkitzen ditu orain, jendetzen helera oztopatu edota kontrolatzearen aurkitu ere: karrerak balio gabetzea gizartean, lan-merkatuan baliagarriak diren ikaskuntzak pribatizatzea, selektibitatea,...

\* Sektore aurrekapitalistetan (lehen sektorea, merkataritza eta jabe txikiak,...) eta zerbitzuetan, produktzio-moldea gero eta sakonago sartzeak ez du lanpostu berririk sorrarazten, lan-indarraren askapena eta horren ondoriozko ekintzaren proletarizazioa ekartzen baino, kasurik nabarmenena Euskal Herrian nekazaritza izan bada ere, arrantzan, abelkuntzan eta basogintzan ere joera hedakorra da berori. Era berean, merkataritza famili-egitura desagertzeagotzeak, horrek, dendandiak eta merkatal-zentruak ezartzearen alde jokatu du horrek; hiperberezikuntzan (elektronika, informatika, bideoak, ...), ez du beste inon horretan baino irauten halakorik: denda txikiez osaturiko sare itzelak. Fenomeno berbera ematen da 'etxe koandren zeregina' osatzen duten egin beharretan sartzean, eurak lan-merkatuan sar daitezzen sarbidea errazagotuz.

\* Produktzio-moldea alor eta zeregin berrietan sartzearen ondorioz, aisialdi eta kulturarekin zerikusirik dituen lan berriak (kultur-gizarte zuzpertzailak, adibidez), zerbitzu pertsonalak arrazionalizatzeari lotuak eurok (norberaren jabegoa zaintzea, drogo menperatuak bergizarteratzea, etxean bertan laguntzea,...); eta besterik ere. Alabaina, arlo eta ekimen berriei zabaltze horrek ez du ganoraz kentzen ez leuntzen benetako ezenplegua.

\* Enplegu-eskaintza eta lan-indarra erabiltzeari buruz, ondorio murrizkorrak hedakorrei nagusitzen zaizkie.

\* Alor hedakorretariko bat = irakaskuntza. Industrializaziobide arinak eskatu izandako alfabetatze orokorrak eta kualifikazio teorikoak, biok sorrarazi duten, 'booma', atzerantz egin du horrek demografi orekatzearen ondorioz, eta bere premiak betetzeari ekiten dio egun (gero eurek ere irakasteko ikasten duten ikasleak) produktzio-prozesuak, merkataritzak eta bestek eskatzen dutenari baino areago erantzun ere. Pentsatzekoa da, baita, irakaskuntzaren mamian bertan ere aldaketa sakonak ekarri direla, sistemak, erabiltzekoak diren ezagupenak bersortzeko funtzioa, hori horretan, gero eta bazterrakoagoa delako hain zuzen ere. Azpimarratzeko da, baita, bide pribatuaren bitartez egiten ari den 'lanbide berriak' direlako sendotzea, merkatuak eskatzen bait ditu (moda, informatikaren erabilera berezituak, kultur-zuzpertzeta,...), halakoetan trebakuntza ez bait da irakaskuntza klasikoaren bidez burutzen.

## *B.- LAN-BALDINTZETAN*

\* Langileok, lekutik lekura ondo aldagarriak gara, gehienetan behintzat. Lan-indarraren malgutasunik gorenak berekin dakar kualifikatzeko edota profesionaltzeko ahalbideen galera (igoerak, beste lanpostu edota enpresatara igarotzea...).

\* Kapitalismoaren bilakaeraren eskutik, lan-indarra erabilia izaten bazen ere, ofizioaren baten jabe zelako erabiltzen zeneko garai klasikotik egungoraino etorri gara, non makina edota prozesoez zatikako ezagupenak edota erantzun automatizatuak ekartzen dituzten langileak biltzen diren tegi berean.

\* Aintzat arloa, lan-kapitalek elkarren arteko osakera organiko ezberdinak dituzte. Industrialsuenek kapitalaren aldeko joera arinagoa dute elkarrekiko lotura (Kimikak, Telekomunikazioak,...). Halakoetan, inbertsio itzelak egiten dira erabilia den gizabanakako makinerian, automatizazioan...

\* Lantokiak sakabanatzea eta elkarrenetik hurrunaraztea erraztatzen da: aintzina lantoki berean egiten zena produzitu, kudeatu eta abar (gehienetan legezko jabe bakarrari, enpresa bati zegokiona), orain, aldiz, zenbait leku txiki eta ezberdinetan egiten da, aunitz jabe legezko, enpresa eta halakoekin. Horrek ondare txikidun enpresak izatea erraztatzen du, hots, inoren ondaredunak (alokatua), berak kontrolatua den azken emaitzaren zatikako osagarriak erosten dituen enpresa haren menpekoak izanik txikiok guztiok. Enplegu berean irauteari dagokionez, kilikolotasuna hurrengoan datza, hots, azken akoizkina orokortzen duen lantoki/enpresak lantoki/enpresa bakoitzarekiko duen hurrunketa graduak. Ama-enpresak edonoiz eta edonolako goieran alboratu nahiz ordeztu ahal ditu bere menpekoak diren lantoki/enpresak.

## *C.- AIPAMEN BEREZIA MAILA ETA FUNTZIOEN PROBLEMATIKARI*

a) Oro har:

- \* Sakonki aldatzen da lanbide-mailen egituraketa eta euren arteko harremana (jerarkia, igoera,...).
- \* Eragile erabakiorraren gakoak, kategori-asignazioari dagokionez, norberaren lan-gaitasunean izatetik lanpostuan bertan izatera igarotzen da (lanpostuen balioespen formala eta informala).
- \* Mobilizazioa funtzionalak kualifikagetu egiten du eta, polibalioaren bidez, benetako kategori bakarra sorrarazten du.
- \* Ikaragarri eskasten dira langile kualifikatuentzako lanpostuak (ofizialak, maisuak,...). Peoiak, menpekoak, laguntzaileak, e.a. dira, batez ere, lan-indarra osatzen dutenak orain.
- \* Edozein lanpostu zertzen duten zeregin eta betebeharrak gero eta trebakuntza, ikasketa edota lan-gaitasun txikiagoa eskatzen dute.
- \* Gero eta areago, 'lanbide' kategoriek zerikusirik zuzena dute alokairuekiko edota jerarki-mailekiko (agintea, autoritatea) zeregin edo beharreko izan beharrean.
- \* Arduradunek, behin betirako, 'lanean gaituenak' izatearena galtzen dute, jarrera eta bizgarri bidezko tekniketara, talde dinamikan eta halakoetan oinarritzera igarotzeko batez ere. Haiak bidezko bilakarazten dituen ez datza jakintzaren jerarkizazioan (ofizialak, espezialista, peoia). Ideologi-ardatz zilegitzailetariko bat izango da 'denon onerako, erantzungarritasuna eta zerbitzua' modura ulertzea agintaritzan.

b) Zenbait lanbide-multzotan bereziki, egiaztatzen direnak dira:

- \* Administrariak: kualifikazio eskastun lanpostuen ugalketa sendoa (laguntzaileak). Talde honek ere zereginen banaketa sufritzen du, hala kudeagintzarako eta testu-lanketarako informatika-sistemak sartzearen eraginez, nola betebeharrak bakar bat bera ere betetzean erabateko berezikuntza dela eta.
- \* Produkzio zuzeneko ofizialak: ahaztu egiten zaie lanbidea, iraganean lanbidea izandako zeregin txikitzen zatikatzen delako eta produkzio-prozedura automatizatu egiten delako.
- \* Mantenuko ofizial ez-zuzenak: teknifikazio gero eta handiagoak urritu egiten du arloa. Mantenua, egiaztaketa eta konponketa, aldiz, eskuliburu eta arautegi zehatzetan bilduak diren zeregin gero eta soilagoetara murriztuak dira. Zereginok betetzeko, bestalde kanpoko kontratatara jotzen dute enpresek gero eta sarriago.
- \* Teknikaria: gutxiengo baten superberezikuntza, hala produkzioan nola kudeaketan (materiale eta energi-iturri berriak, informatika,...) eta gehiengoren kualifikagabete-proletarizazioa.
- \* Zuzendaritzakoak: areago hazten dira goi-kualifikaziodun lanpostuak erdiko titulodunak baino. Erabaki-maila gorenok, helburuen bidezko planifikazio tekniken jakintza diren 'merkatu-adituen' gero eta esku osoago geratzen dira. Merkatu-erabakiak (teknologia erostea edota sartzeara,...) aintzakotzat hartuta bideratzen da produkzioa, enpresaren beraren berrikuntza edota barru-egituren arabera baino sarriago.
- \* Enpresetan eta komenioetan oraindik ere lanbide-egitura klasikoak gordetzeak, horrek ez digu besterik esan behar hurrengoak baino, amaitu gabe dagoela gure lan-ekonomi azpiegituraren egokipena 'merkatuko premietara' (itxiera eta, iraun ahal izateko bezainbesteko merkatu-baldintza betetzen duten enpresetan, aldiz, aldaketak ekoizpideetan, lan-eraketan, ...) kontua da krisiak sorrarazten dituen mutazioen eskarrietara egokitzea edo, besterik gabe, merkatutik desagertzea.

c) Laburtuz, deskualifikazioaren zergatiak:

- \* Mobilitate funtzionala = benetako polibalioa.
- \* Teknifikazioa/informatizazio/automatizazio = 'lanbidezko jakintza' gizakiarengandik makinara igarotzen da.
- \* L.E.Z. (Lanaren Erakuntza Zientifikoa) = zereginen, zeregin bakarrean espezializatzea,... 'Lanbidea' osatzen duten zeregin eta funtzioak zatikatu eta banatu egiten dira.
- \* Lanpostuak kentzea aintzinako ETTetan = eurretan egon izan da lan kualifikatuaren handiena. ETEE berriak = produkzio oso gutxi aunitua eta ekoizbideen automatizazioa, halakoek ezkualifikatuentzako lanpostuak sorrarazten dituzte.

\* Inbertsio berriak benetakoak (espekulatuak beharrez), nazioarteko kapitalari eta egungo monopolio-sektorei lotuak, hornexek dira langile kualifikaturik eta zuzenik, halakorik gutxien irensten dutenak.

### III.- ONDORIOAK LANGILE MUGIMENDUAN

Eskuhartze sindikala duen eta klasearena den erakundearen ikuspegitik, langileriaren egitur-indarra lits urratua da, zatikatuta dago, sakabanatuta... Iraganeko elkartzasuna saretu izan den lekuetan (esku-lan pilaketa itzelak, lan-baldintzen homogenitatea, burrukeen ondorioak,...) ez da baldintza berdinek edo antzekorik. Aldatu egin da klase-osakera, produkzio-harreman sozialak, deuseztu egin da langile erakundearen jaiotoki eta bilakaleku izan diren oinarriak.

#### 1.- KLASE-EGOERATIK BERTATIK ERATORRIAK

Bai produkzio-deszentralizazioak eta bai teknologi berrikuntzek, (adarra zein federazio izan) ohizko ekinbide sindikalaren narriadura dakarte biek, istiluak eskualdeetakoak izateko joera dago, elkarren antzekoagoak dira ezberdinak baino, bestelako adarretakoak izan arren,... Ekinbide sindikal klasikoak ez da eraginkorra, zeren eta egoki eta men egin, krisian dagoen produkzio-moldoreari dagokion eta egiten dion men, molde horren ezagurriak izanik barne trinkotasun gogorra adarrik eta adarra adarraren aldean ezberdinak izatea guztiak. Era berean, ahuldu egiten da negoziazio-gaitasuna, lan-indarraren atomizazioa eta sakabanatzearen ondorioz. Ezinezko bihurtarazten da adar-federazioen bidezko barne-egiturak estrategia amankomunikatzea, eta baita halakoen arteko koordinazioa eta harreman hutsak ere.

Bai sindikatuek arean duten ez-operagarritasunaren aurrean eta bai langileria beraren itsukeria ideologiko-politikoaren aurrean ere, sindikatu-erakunde korporatibisteen sorrera, egonkortasuna eta, inoiz, hazkunde ere nabarmenak da (erdiko mandoak, profesionalak, ...) eta, aldi berean, afiliazioa eta erakundetze-indize ikaragarri txikia produkzio-prozesuaren kanpoaldeko enpresetan eta kudeaketakoetan (azpienplegua, aldizkako kontratazioa, ...) eta handia monopolio-enpresetan eta zerbitzu publikoetan (enplegu egonkorak, enpresa merkatu-kontrolatzaileak).

#### 2.- LANGILE ERAKUNDEAK / ESTATUA HARREMANETAN

Estatu modernoak ez da tresna menperatzaile hutsa; hori ezezik istilu-leku eta klase burrukaren eskanatokia ere bada, non gizarte-ondasun banakaketa dela-eta burrukatu egiten den. Kapitalarentzat gastu publikoaren murrizketan datza gakoa, merkatura itzularaziz osasungintza, hezkuntza, S.S.ko prestazioak,...; langileriari dagokionez, aldiz, gizarte-eskubideak sektorerik ahulenei hedatu nahi, non eta krisialdiaren testuinguruan, hortxe datza gakoa.

L.M.aren UGT-CCOO-ELAK protagonizatu duten liskar honen ondorioa hurengoa izan da, hots, sektorerik kaltetuak babestea, erosketa gaitasun orokorraren eta gizarte alokairuaren gabearren truke. Kontzertazio-politikak (Moncloako Ituna, AMI, AES, ANE, ...) kapitalari ahalbidetu diona da, produkzio-ereduaren berrikuntza ezezik, bere klase-posizioa sendotzea eta langileriaren ahultzea, sindikatuon eta, oro har, langile erakundearen sinestgarritasun eta benetako ordezkatasunaren galera nabari eta guzti, eta, batez ere, Hegoaldean ENAM eta LABek bideratzen duten proiektuaren aurrean, langileriarena datekeena bestalde, langileria horrexerik hor sartzea ezinezko egiten dion eta hanka-eskuz lotuta duen halako ideologi-alineazioak ordainduta.

### IV.- L.A.B. ETA LANGILERIA HEGOALDEAN

Beste edozertaz gabe ere, senaz eta, gehien bat, Blokekoa eta ENAMekoa izateagatik, langileriaren egoera berriarekin bat egiten asmatu dugu, zenbait bide ezberdinez:

A) **Erakunde arloan:** lurraldez egiten den egituraketak iraun egiten du eta adarra/federazioa klasikoa abagadunekoa da.

B) **Taktika-mailan:** klasearen erribindikazio zehatzei, unekoei, atxikiturik iraun, fidel, erurak erabili gabe, klase-istilua distortsionatu gabe.

C) **Estrategi-mailan:** istiluak orokortu (eginaren eginez planifikatuz baino hobeto) istiluon konponbidea baldintzatzen duen lege-politikazko markua aldatu beharraren inguruan ardatzuz (KAS alternatiba).

Oraindik ere ez gara igarpenon garrantzi historikoaz kontzienteak, LABek ENAMen urteotan izan duen eragin erabatekoaz. EZ ETA HURRENGOKOAZ. Euskal gizartea, hegoa sozialismoan jarrita eraldatzeko benetako ahalbide bakarrak, LAB du ezinbesteko tarteko, gure erakunde-izaera, gure taktika eta gure estrategia Blokearen eta ENAMen barruan gordetzen dakikegun neurri berean.

### 3.4. ERREIBINDIKAZIO-OINARRIAK

Gure ustez negoziazio kolektiboa pasatu behar deneko ARDATZAK:

- a) Denborari dagokionean: Indarrean, urtebetez, ezen gure eritziz zentru eta biztanleria-sektoreen birregituratze-prozesu iraunkorrean sarturik dauden langileen intereseei bait dagokie.
- b) Eduki erreibindikatzaila: Aurka egin eta ekin behar diegu produkzio-erritmoak areagotzeari, plantila-malgutasunari, balioanitzei, geografi edo funtzio mugikortasunari, zeintzuek fase honetan nabarmentuasun funtsezkoa hartzen bait dute eta zuzenean loturik bait daude epe erdirako eragiketekin, zeintzuen azken xedea plantilak gutxitzetik pasatzen den.
- c) Alokairuak: Kontutan izanik, alde batetik zerga, P.F.E.G.Z. (I.R.P.F.), etabarren gero eta zama astunagoa, eta, bestetik, gure zalantzak K.P.I. (IPC) gaian estatistikaren fidagarritasunari dagokionean, eta oinarritzat langile guztien bizi-maila hobetzeko filosofia, hau da, bizitza-kalitatea hobetzea, hartuz, eta guzti hau langileok sortarazten dugun izugarrizko plusbaliaren gehikuntzan funtsaturik, erreibindikatu behar dugu 2 puntu 1.988ko KPIren gainetik, eta ekaineko berrikusketarekin + 1 puntu aseguratu behar dugu geure alokairu-oinarria, orokorrean linealtasuneranzko alokairu-ordainketarako eredu bultzatuz.
- d) Ihardunaldia: Erreferentzia bezala, astero 38 orduko ihardunaldia (egotea) markatzen dugu, eta salbuespenak salbuespen, LABek ez luke izenpetu behar urteko ihardunaldia (egotea) 1.800 ordutik behera ezartzen ez dukeen inolako Hitzarmenik.
- e) Ordezkaritasuna eta Kontrol Sindikala: Bultzatzen dugu Enpresa-Batzordea, berau ere txertaturik lantegiko asanbladaren antolaketa-esparruan, korrante sindikal ezberdinen zera biltzaile den aldetik, eta bat bederaren lan-tokien marko espezifiko eta zehatzean. Garatuko dituzte ere, segurtasun-arauen gutxienezkoa betetzen ez duten produkzio-sistemaren aldaketak eta proiektu teknikoan ekonomi eta finantza kontrola.
- f) Pentsio-Fondoak: Biztanleria guztiarentzako sanitate-urgazpenak suposatzen duen gizarte-lorpena, berriro ere langileriaren ekonomiaren lepora zamatuko dute. Aldi berean INSSen "ekonomia" egiteko erabil daitekeelarik, hau da, pentsioetan, eta G.S.ren (S.S) privatizazioranzko bidean segitu.

G.S.ren "porrot"aren erreklamoaz Gobernuak, Banka guztiak (zein datorkion pagotxaren aurrean eskuak igurtzen ari bait da) apoiaturik, iaz "Pentsio-fondoak" eratu zituen eta Fondo horiexen Arauegiak erditu berri da, azken batez esatera datozkigu ezen Estatuak ezin mantendu dituela klase pasiboak eta G.S.k estaliko ez digun zatia geuk ordaintzea pentsatzen hasi behar dugula.

Langileak ohartarazi nahi ditugu, zeren aurtengotik aurrera, komenio kolektiboetan, ugazaberiak eraso bizian helduko bait dio gai honi, eta gure jarrerak ez du bestelakorik izan ahal, fondo hauek lantegietatik sustatzeari ezetz biribila ematearena baino.

- g) Gehienezko eta Gutxienezko Komenioak: Arau orokortzat herrialde eta sektore hitzarmenatarako gutxienezkoen komenioa izenpetzara joko da, honela sektore edota herrialdeko enpresetan gainditua izan daitekeelarik.
- i) Euskara: 1. LABek hitzarmen guztietan enpresek matrikulazioa AEKn ordain dezaten bultzatuko du.  
2. LABek defendatu egingo du Euskara Lan-tokietan, iragarki-oholetan, komunikatuetan, etab. beti egon dadin, enpresaren esparruan hizkuntza bizia izatearen alde borrokatuz.
- j) Segurtasuna eta Higienea: 1. Hitzarmenetan Segurtasun eta Higiene Batzordeetako presidentek langileek edo euren ordezkariak hautatuak izan daitezen planteiatu behar dugu.  
2. Orain arte ezarritakoen gainetiko gehienezko ordu kopurua planteiatu, Segurtasun eta Higiene Batzordeetako langileen ordezkariari ahalbidetzeko euren ihardueraren garapena, lantegietako segurtasun eta higiene neurriak kontrolatu eta jarraipena egin.

Segurtasun eta Higiene Batzordearen osaketa:

- 25 langile arte, pertsonalگو-delegatua.

- 25etik 50 langilera, langileek hautaturiko zaindari bat.
  - 50 langiletik gora, Segurtasun eta Higiene Batzordea.
  - Segurtasun eta Higiene Batzordearen %50ak iharduna gerarazi ahal izango du istripu-arriskur denean.
- k) Enplegua: Lanpostu finko baten konstataziorik bada, lan-kontratazioa beti izango da mugagabe epez.

### 3.5. NEGOZIZIO ESPARRUAK

LABek negoziatio-esparrutzat Hego Euskal Herriarena defendatuko du. Herrialde mailako hitzarmen defendatuko ditu Sindikatuak negoziatiozako gaitasun gutxiago duten sektoreetako lan-baldintzen defentsatz harturik.

Euskal Herria gainditzeko duten komenioei dagokienean, bereizketa egin behar litzateke Estatu guztiko enpresak (Renfe, Denda Handiak, etab.), zeintzuen kasuan ordezkariak edukiko bagenu, LABek negoziatio-marko horretan egon beharko lukeen, beti ere zabaltzen eta erreindikatzen Euskal Herriko markoa, eta beste alde batetik sektoreak deritzegunak (Banka, Papera, etab.), zeintzuetan hurrengo helburuak araberako egon litekeen:

- a) Lehentasuneko eginkizuna hitzarmen hauek negoziatio-markotzat Euskal Herria eduki dezate lortzeko borroka da.
- b) Sektore bakoitzetik albait informazio makroekonomikorik gehien eskuratzea.
- c) Bermatu ezean LAB negoziatio horretan egoteak ez duela Euskal Herriko inolako negoziatio baldintzatzen, bai Enpresetako edo bai Herrialdeko.
- d) Gure delegatuengan inolako higadura sindikalik izan ez dadin begiratu, salbu eta beraientzat litekeen negoziatio-esparru bakarra izan.
- e) Hala ere, beti, LABek lehentasuna eman behar dio sindikatu aldetik gehiago sendartzen gaitue negoziatio-markoa eta Euskal Herriko langileen erreindikazioen aldeko borrokan aurrerapena de neurrian.

The first part of the report deals with the general situation in the country and the progress of the work during the year. It is followed by a detailed account of the work done in each of the various departments.

### REPORT OF THE DIRECTOR

The work of the Institute during the year has been carried out in accordance with the programme of work approved by the Council at its meeting on 15th December 1947.

The first part of the report deals with the general situation in the country and the progress of the work during the year. It is followed by a detailed account of the work done in each of the various departments.

The work of the Institute during the year has been carried out in accordance with the programme of work approved by the Council at its meeting on 15th December 1947.

The first part of the report deals with the general situation in the country and the progress of the work during the year. It is followed by a detailed account of the work done in each of the various departments.

The work of the Institute during the year has been carried out in accordance with the programme of work approved by the Council at its meeting on 15th December 1947.

The first part of the report deals with the general situation in the country and the progress of the work during the year. It is followed by a detailed account of the work done in each of the various departments.